


enero de 2012 ko urtarrila

umandi iKastola

# editoriala
## editorial

KAIXO:

IKASTURTE BERRIA HASI DUGU, PROIEKTU, ITXAROPEN, ALDAKETA ETA ERRONKA BERRIEKIN. LEHENENGO ALDAKETA IZANGO DA IKASTURTE HONETAN ALDIZKARI HONEN HIRU ALE ATERA BEHARREAN BI BAINO EZ DITUGULA IZANGO.
AIPAMEN BEREZIA EGIN NAHI DIOGU ORAIN ARTE LANKIDE-ERREDAKTORE IZAN DUGUN ADOLFORI: "herentzia ona utzi diguzu, aldizkaria berdin mantentzen saiatuko gara eta, posiblea izanez gero, hobetzeko ere lan egingo dugu" . MILA ESKER ADOLFO
ETA BETI BEZALA IKASTURTE HAU EKINTZA BEREZIAZ BETETA EGONGO DA, HALA NOLA, AGATE DEUNA, IHAUTERIAK, PRUDENTZIO DEUNA, ANTZERKI ETA MUSEOETARA IRTEERAK, EUSKARAREN ASTEA ETA, NOSKI, IKASTOLAKO FESTA. OSPAKIZUN GUZTIETAN GOZATU, PARTE HARTU ETA LAGUNTZERA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.

ESKERRIK ASKO ETA URTE BERRI ON.



HOLA:

HEMOS COMENZADO UN NUEVO CURSO, CON NUEVOS PROYECTOS, ILUSIONES, CAMBIOS Y RETOS. EL PRIMER CAMBIO ES QUE ESTE CURSO TENDREMOS DOS NÚMEROS DE LA REVISTA EN LUGAR DE TRES.
QUEREMOS TAMBIÈN HACER UNA MENCIÓN ESPECIAL A ADOLFO, EX-COLABORADOR-REDACTOR DE LA REVISTA, "nos dejas una buena revista en herencia, esperamos conservarla igual e incluso mejorarla". GRACIAS ADOLFO.
Y COMO SIEMPRE ESTE CURSO ESTARÁ CARGADO DE CELEBRACIONES ESPECIALES COMO SANTA ÁGUEDA, CARNAVALES, SAN PRUDENCIO, SALIDAS A TEATROS, A MUSEOS, LA SEMANA DE EUSKERA Y COMO NO LA FIESTA DE LA IKASTOLA. OS ANIMAMOS A TODOS A DISFRUTAR, PARTICIPAR Y COLABORAR EN TODAS ELLAS.

GRACIAS Y FELIZ AÑO NUEVO.

XARBOT

# aurkibidea

## sumario

AURKIBIDEA


| | |
|---|---|
| editoriala | 2 |
| aurkibidea | 3 |
| 2 urteko gela | 4 |
| 3 urteko gelak | 6 |
| 4 urteko gelak | 9 |
| 5 urteko gelak | 12 |
| 1. Maila | 15 |
| 2. Maila | 17 |
| 3. Maila | 19 |
| 4. Maila | 22 |
| 5. Maila | 25 |
| 6. Maila | 28 |
| euskara astea | 31 |
| ingelesa | 34 |
| liburutegia | 36 |
| umandi gusaso elkartea | 38 |


SUMARIO


| | |
|---|---|
| editorial | 2 |
| sumario | 3 |
| Clases de 2 años | 4 |
| Clases de 3 años | 6 |
| Clases de 4 años | 9 |
| Clases de 5 años | 12 |
| 1. Curso | 15 |
| 2. Curso | 17 |
| 3. Curso | 19 |
| 4. Curso | 22 |
| 5. Curso | 25 |
| 6. Curso | 28 |
| semana del euskera | 31 |
| ingles | 34 |
| biblioteca | 36 |
| asociacion de padres | 38 |



XARBOT
ERREDAKZIO

ERREDAKZIO TALDEA
Pablo Edu
Susana Zahira

Parte hartu dutenak:
-Ikastolako Ikasleak
-Ikastolako gurasoak
-Ikastolako irakasleak

Portada:
Itzal

Argitaratzea:
Guraso elkarteak

GRUPO DE REDACCIÓN
Pablo Edu
Susana Zahira

Han tomado parte:
- Alumnado de la Ikastola
- Madres y padres de la Ikastola
- Profesorado de la Ikastola

Portada:
Itzal

Edita:
Asociación de Madres y Padres



C/ Francisco Javier Landáburu, 9
01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf: 945172801
Fax: 945172693
www.umandi.net


GURASO ELKARTEA UMANDI

# 2A urteko gela



# 2B urteko gela

## ONGI ETORRI GURE IZAR BERRIAK



JOXEPA



# xarbot

## 3 urte A




PASABIDETIK, ISILIK





MARITXU TXERRITXU

PASABIDETIK,
KORRIKA EGIN GABE







MESEDEZ ETA FABOREZ



PASABIDETIK,
LASAI IBIL ZAITEZ





ENTZUN NAHI BADUZUE ZER ONDO IKASI DUGUN, SAR ZAITEZTE IKASTOLAKO IRRATIKO BLOGEAN ETA SARTU AZAROAREN 11KO IRRATSAIOAN. AGUR

# 3 urte B



ETA ESKAILERAK IGO EDO JAISTEN DITUGUNEAN...



## TIK, TIK, TIK



## BARANDATIK









# 3 urte C





HAIZEAK UDAZKENEAN,
FU-FU

HOSTOAK,
FRIN-FARAN



GOITIK BEHERA,
DANTZAN








level 10 years
language services

Francisco Javier Landaburu 24, bajo
Vitoria-Gasteiz 01010
Tlfno/ Fax: 945 175809
E-mail: infolevel@levelenglish.net
Web: www.levelenglish.net

TODAVÍA ESTÁS A TIEMPO DE TERMINAR BIEN EL CURSO .
INGLÉS TODOS LOS NIVELES Y EDADES:
Y PARA ESTE VERANO: TALLERES EN NUESTRO CENTRO,
CAMPAMENTOS Y PROGRAMAS EN EL EXTRANJERO.

# 4 urte A




IKASTOLAN ZEIN MUSEOAN



GU BAI ARTISTAK!!!





ARTE EDERRETAKO MUSEORA JOAN GARA OIHANAREKIN JOLAS ETA TAILER PILA EGIN DITUGU.






TIPI-TAPA, TIPI-TAPA EUSKAL HERRIAN ZEHAR,
TIPI-TAPA, TIPI-TAPA MINGAINEAN EUSKARA



NOSKI



HEMEN DAGO
MAULEKO GAZTELUA







ETA ORAIN
URRATSAK



OSO ONDO PASA DUGU ELKARREKIN
OINAK MARGOTZEN





# GAZTAINAK

UDAZKENA HELTZEAN, ASTOTXOAREN LAGUNTXOAK GAZTAIN BILA EGON GARA ARRIAGAKO PARKEAN ETA MURUAN, ETA AZKENEAN... GAZTAINEROA ETORRI ZEN IKASTOLARA!!!

UMMMMM!!! ZE GOXOAK GAZTAIN ERREAK

PARKEAN PILONA ASKO DAUDE!









BA MURUAN GAZTAINAK ETA HOSTOAK DAUDE



UDAZKENA HELDU DA,
TXORIAK IXILIK,
HOSTOAK JAUSI DIRA...









# AURTEN HAUR HEZKUNTZAKO HANDIENAK GU

HANDIAK GARENEZ GERO LAN ASKO EGITEN DUGU GURE GELETAN.

GURE BELDURREI AURRE EGITEN IKASI DUGU. DAGOENEKO MUNSTROETAN JOLASTEN GARA NEGAR EGIN GABE. BAI ONDO!!!

MUNSTROEN ERAKUSKETA ERE ANTOLATU GENUEN IKASTOLAN ETA, ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN.
ETXEAN EGINDAKO MUNSTROAK ZIREN, GURE FAMILIAREN LAGUNTZAREKIN. ZE ONDO PASA GENUEN EGITEN






JARRAIAN 7 ANTXUMEEN ANTZEZLANA ENTSAIATU GENUEN.
BURUZ IKASI, MOZORRATU, ESKENATOKIA PRESTATU...
ETA AKTORE BIKAIN BIHURTU GINEN.
UMANDITIK HOLLYWOOD-ERA

















HORRETAZ GAIN KANTAK IKASI, AHOKORAPILOAK ERREPIKATU, IGARKIZUNAK ASMATU.
HORI GUZTI HORI ERE EGIN DUGU.
GU BAI LANGILEAK

URTERO BEZALA AURTEN ERE IKASLE BERRIAK ETORRI DIRA UMANDIRA. GURE GELETARA ERE BAI:

ONGI ETORRI **HUGO**
PITXITXIREN GELARA





ONGI ETORRI **IAN** ZANPAREN GELARA




IRAKASLE BERRIAK ERE IZATEN DITUGU URTERO.
ETORRI ETA JOAN EGITEN DIRA.

AURTEN KUTTINEN GELAN **ARGINE** EGON DA. AGUR ETA ONDO IBILI ARGINE






# 1 maila









Hau da gure udazKeneKo
zuhaitza HostoaK guK egin
ditugu eta oso ondo pasatudugu
egiten 1. maila A- KoaK

Hau da gure udazKeneKo
zuhaitza HostoaK guK egin
ditugu eta oso ondo pasatudugu
egiten 1. maila A- KoaK



1 maila a

# 1 maila






Kaixo lagunok: 1.B mailako neska-mutilak gara. Hemen duzue gure "Denboraren makina" ROBOTO du izena. Denon artean egina. Bidai zoragarriak egitea espero dugu.

NAHI AL DUZUE GUREKIN BIDAIATU?

1 maila b





Egunero arduraduna eta laguntzailea. Horrela antolatzen dute.

1.C.

1 maila c

HORARIO ININTERRUMPIDO: NO CERRAMOS AL MEDIODIA
LUNES A VIERNES: 8:00 A 21:00
SABADOS: 8:00 A 15:00
DOMINGOS Y FESTIVOS:.10:30 A 15:00
ASAMOS POLLOS: SÁBADOS Y DOMINGOS
Dayco
DERIVADOS DE AVES Y CONEJOS
TELEFONO: 945 17 42 41


TiPi-TAPA TiPi-TAPA
EUSKAL HERRiAN ZEHAR
TiPi-TAPA TiPi-TAPA
MiNGAiNEAN
EUSKARA
Ainara P.


IKUSLEARI SARIAK / PREMIOS AL ESPECTADOR
Marieta
Nombre / Izena Malen Aguirregabiria Telf: 655714598
Colegio / Eskola Umandi Curso / Maila 2. A


IMPRESIÓN DE FOTOS DIGITALES DESDE 0,06 €
Gurpil
IMPRESIÓNDIGITALGRANFORMATOREPRODUCCIÓNDEPLANOSPLOTTEADOSENCUADERNACIONESPLASTIFICADOSMATERIALDEOFICINAYESCOLARCDDVDREGALOSFAXENMARCACIONESIMPRESIÓNDEFOTOGRAFÍASDIGITALES...
FOTOCOPIAS
Trabajamos con mimo


"la Caixa"
BetiZu
KLUBA
"la Caixa"

# PETRUXA

2. MAILA B



## MATERIALA

- Intxaurraren erdia
- Hurra
- 3 zotz
- Tenperak: Gorria,
- beltza, zuria
- Plastilina beltza
- Itsasgarria
- Pintzelak

## NOLA EGIN ......

1. Intxaurra gorriz margotu eta lehortzen denean zazpi puntu beltz gainetik ipini.
2. Hurrarekin burua egingo dugu, begiak eta ahoa zuri eta beltzez margotu.
3. Zotzak beltzez margotu.
4. Buruan plastilina jarri eta gero gorputzarekin itsatsi.
5. Zotzak intxaurraren behekaldean itsatsi eta.....

Azkenean gure Petruxa polit-pola



Izena: Joseba   Data: (11-11-29)

Antzerki:

Gaur goizean lehenengo eta bigarren
mailakoak Beñat etxepare antzokira joan
gara antzerki bat ikustera.
Protagonistak neska bat, mutil bat eta
panpin batzuk ziren. Mutila pobrea
zen eta Urbano deitzen zen. Neskak
Marieta zuen izena. Neska etxetik joan
zen bere amak ez zuelako denborarik
berarekin jolasteko. Urbano eta Marieta
lagun handiak egin ziren.
Asko gustatu zait.

Joseba



## ENTREVISTA A JÓSE

HOLA JÓSE, SOMOS ALUMN@S DE 3A Y NOS GUSTARÍA HACERTE UNA ENTREVISTA EN CASTELLANO Y EN EUSKERA (APROVECHANDO QUE ESTAMOS APRENDIENDO A ESCRIBIR ESTE TIPO DE TEXTO)-

¿ COMO TE LLAMAS? -ME LLAMO JÓSE LÓPEZ.

-¿ DE DÓNDE ERES? -SOY DE BILBAO. VIZCAYA.



-¿ CUÁNTOS AÑOS TIENES?-TENGO MUCHOS, POR ESO NO QUIERO DECIR.

-¿ DÓNDE TRABAJAS?-AHORA TRABAJO EN LA BIBLIOTECA DE LA IKASTOLA UMANDI, PERO COMO SOY PROFESOR, MAÑANA NO SÉ DÓNDE TRABAJARÉ.

-¿ CUÁNTO TIEMPO LLEVAS EN UMANDI? -LLEVO DOS MESES TRABAJANDO AQUÌ Y NO SÉ HASTA CUÁNDO, PERO ESPERO ESTAR HASTA NAVIDADES.-

¿ CUÁNTAS HORAS DIARIAS DEDICAS A TRABAJAR EN LA BIBLIOTECA? -AL TRABAJO EN LA BIBLIOTECA DEDICO SEIS HORAS DIARIAS.

-¿ EN QUÉ CONSISTE TU TRABAJO? -MI TRABAJO CONSISTE EN : PRESTAR LIBROS, ORDENAR LA BIBLIOTECA, CUIDAR LA BIBLIOTECA, LEER LIBROS A DIFERENTES CURSOS...

-¿ TE GUSTA TU TRABAJO? -SI, ME GUSTA MI TRABAJO, SOBRE TODO LEER. Y ME PONGO CONTENTO CUANDO VEO A LA GENTE QUE LLEVA LIBROS O CUANDO DISFRUTAN LEYENDO.

-ZEIN DA ZURE LIBURU GUSTOKOENA? -GALDERA ZAILA DA, ASKO DIRA GUSTATZEN ZAIZKIDANAK, BAINA ...BAT AIPATU BEHAR BADUT: OBABAKOA ESANGO NUKE.

-ETA ZURE IRITSIZ, NOR DA IDAZLERIK HOBERENA?-BA EUSKARAZ... BERNARDO ATXAGA,... IRIGOYEN ERE ONA DA. ETA GAZTELERAZ JAVIER CERCAS.

-ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUN JANARIA? -ARROZA OSO GOGOKO DUT.

-GUSTORA AL ZAUDE LANAGATIK JASOTZEN DUZUN DIRUAREKIN? ZENBAT DA? -BAI, GUSTORA NAGO ETA IRABAZTEN DUT BEHAR DUDAN BESTE.

-GU, TXANELAN, EGIPTO GAIA LANTZEN ARI GARA. INOIZ EGON AL ZARA EGIPTON? -EGIPTON EZ, BAINA BAI AFRIKAKO HAINBAT TOKITAN, ADIBIDEZ: MALIN, GANAN, SENEGALEN ETA ETIOPIAN.




-ZER IKUSI ZENUEN BIDAI HORIETAN? -MOTXILA HARTU ETA BAKARRIK JOAN NINTZEN TOKI ASKOTARA. HAN HIRIAK, MONUMENTUAK...IKUSI NITUEN BAINA ONENA IZAN ZEN EZAGUTU NUEN JENDEA. JENDEAREN HARRERA OSO ONA IZAN DA ETA LEKU GUZTIETAN ONDO TRATATU NAUTE.-

TXIKITAN ZERTAN JOLASTEN ZENUEN? -TXIKITAN ASKO JOLASTEN NUEN. ZERTAN? ...ITURRIETAN (A LAS CHAPAS), FUTBOLEAN, ETA GUK EGINDAKO GOITI-BEHERAREKIN ERE. BA AL DAKIZUE ZER DIREN GOITI-BEHERAK GALDETU, GALDETU ZUEN GURASOEI...GOITI-BEHERA BAT ZER DEN. HAIEK JAKINGO DUTE ETA.

ESKERRIK ASKO JÓSE.

## MENDIXURRERA

GU, 3.B-KOAK MENDIXURRERA JOAN GINEN. HAN MAKETA BATEN LAGUNTZAZ, SARAK AZALDU ZIGUN URTEGIA NOLA EGIN ZUTEN, HERRI BATZUK URPERATU ZIRELA ETA HERRIKOEK ZER EGIN ZUTEN,...

GERO PRISMATIKOZ ETA TELESKOPIOZ HEGAZTI ASKO (MOTA ASKOTAKO AHATEAK, KAIOAK,...) IKUSI GENITUEN ETA HARRAPAKARIEN ATZAPARRAK ERE.

ASKOK HILDAKO KARRAMARROAK ETA HAUEN ZATIAK AURKITU ZITUZTEN.

ASKO GUSTATU ZITZAIGUN TXANGO HORI!
















## 3.C mailako berriak

KAIXO LAGUNOK, 3.C MAILAKO IKASLEOK LEHENENGO HIRUHILABETEAN EGINDAKOAREN BERRI EMANGO DIZUEGU

### ENPATITERAPIA

URRIAN EMOZIOEN TAILERRA EGIN GENUEN: "ENPATITERAPIA". HITZ ARRAROA DA, EZTA? BENO, BA EZ DA HAIN ZAILA. ENPATIA BESTEEN LEKUAN JARTZEA ETA NOLA SENTITZEN DIREN ULERTZEA DA. ETA HORI IKASI GENUEN GUK AITZIBER ETA IRAIDE BEGIRALEEKIN. TAILERRA DIBERTIGARRIA IZAN ZEN ETA EGIA ESAN, ASKO IKASI GENUEN.





### ARTE ETA LANBIDE ESKOLAKO TAILERRAK

URRIAREN ERDIAN ARTE ETA LANBIDE ESKOLARA JOAN GINEN ESKULAN INTERESGARRIAK EGITERA. HIRU TALDEETAN BANATUTA HIRU TAILER EGIN GENITUEN : TALDE BATEKOEK KAMISETAN APAINDU ZITUZTEN, BESTE TALDE BATEKOEK OHIAL ETA HARIEKIN LAN EGIN ZUTEN ETA AZKENAK BEIRATEAK EGIN ZITUZTEN. BI SAIO BEHAR IZAN GENITUEN LAN HAU EGITEKO, BAINA EMAITZA BIKAINAK IZAN ZIREN!!

### AZOKA TXIKIA

AURTEN ERE AZOKA TXIKIAN PARTE HARTU DUGU. AZOKA TXIKIAN GURE JOSTAILUAK SALDU ETA JASOTAKO DIRUA MAROKOKO AGADIR HERRIRA BIDALTZEN DA., BERTAKO PETITES BONNES DEITURIKO NESKATILAK LAGUNTZEKO. NESKATILA HAUEK NESKAME EGITEN DUTE LAN OSO EGOERA GOGORREAN. DIRU ASKO JASOTZEA ESPERO DUGU!!

azoka txiki
SOLIDARIOA

### ZER DAKIZUE EGIPTORI BURUZ?



- BADAKIZUE EGIPTO AFRIKAN DAGOELA ?
- BADAKIZUE NILO IBAIA MUNDUKO IBAIRIK LUZENA DELA ?
- BADAKIZUE URTERO NILO IBAIA GAINEZKA EGIN ETA UHOLDEAK EGOTEN ZIRELA EGIPTON?
- BADAKIZUE NILO IBAIAN HIPOPOTAMOAK ETA KROKODILOAK BIZI ZIRELA ETA OSO ARRISKUTSUA ZELA HANDIK NABIGATZEA?
- BADAKIZUE NILO IBAIAREN UHOLDEEI EZKER LUR ABERATSAK ZEUDELA ETA EGIPTIAR ASKO NEKAZARIAK ZIRELA?
- BADAKIZUE EGIPZIARREK XADUF IZENEKO TRESNA ERABILTZEN ZUTELA URA GARRAIATZEKO?

## KOMIKIAK

AMERIKA GAIA LANDU DUGUNEAN LAUTADA HANDIETAKO INDIOEI BURUZKO KOMIKIAK EKOIZTU DITUGU. HEMEN DITUZUE 4.A GELAN EGINDAKO BI ADIBIDE.






KAIXO LAGUNAK! 4.B TALDEKO IKASLEAK GARA ETA EGIN DUGUNAREN BERRI EMANGO DIZUEGU.



EMOZIOEN TAILERRA: JOKU ETA EGOEREN BIDEZ SENTITZEN DITUGUN EMOZIOAK IDENTIFIKATZEN ETA IZENDATZEN IKASI GENUEN.



UDAL BANDA: KONTSERBATORIOKO "OILATEGITIK" ZUZENEKO MUSIKAZ GOZATU GENUEN



ARTE ETA LANBIDE ESKOLAN: HIRU TALDETAN BANATURIK, BEIRATEAK, KAMISETEN MARGOKETA ETA OIHALGINTZAREN TEKNIKAK LANDU GENITUEN. BI GOIZAK BALIAGARRIAK



"OGRO TXIKIA" REN ANTZERKIA: BEÑAT ETXEPAREN ANTZOKIAN, BENETAN NAHI DUGUN OZTOPO GEHIENAK GAINDITU AHAL DITUGULA IKUSI GENUEN.

## ARTE ETA LANBIDE ESKOLAN

4.C KOAK, 3.C KOEKIN BATERA ,BI GOIZEZ JARRAIAN JOAN GINEN ARTE ETA LANBIDE ESKOLARA ZENBAIT ESKU-LANAK NOLA EGITEN DIREN IKASI ETA BURUTZERA.
HIRU TALDEETAN BANATU GINTUZTEN ETA GOGOZ EKIN GENION LANARI.
BERTAKO IRAKASLEEN TREBEZIA ETA PAZIENTZIARI ESKER TAILER HAUEK GARATU GENITUEN: PUYREKIN, OHIALGINTZA; LAURENEKIN ETA ASIERREKIN... , KAMISETEN ESTANPAZIOA ETA MILAREKIN, BEIRATEAK.
ARGAZKIETAN IKUS DEZAKAZUENEZ, HORTXE GEUNDEN , BURU-BELARRI BAKOITZAREN ZEREGINEAN.







## ARTE ETA OFIZIO ESKOLA

GU ARTE ETA OFIZIO ESKOLARA, AZAROAREN 9 ETA 10EAN JOAN GINEN. TRANBIA GERNIKAKO ARBOLA GELTOKIAN HARTU GENUEN ANTSO JAKITUNERA HELTZEKO. TRANBIATIK JEITSI ETA BOST MINUTUTAN ARTE ETA OFIZIO ESKOLARA HELDU GINEN.
SARTU BEZAIN LASTER BI TALDETAN BANANDU ZIGUTEN.








# ERAKUSKETAK

ARTE ETA OFIZIO ESKOLA

LEHENENGO TALDEAK, IGELTSUAREKIN ETA NORBERE AURPEGIA ERABILIZ MASKARAK EGIN GENITUEN. MASKARAK EGIN ONDOREN, BAKOITZAK NAHI GENUEN BEZALA MARGOTU GENITUEN.



BIGARREN TALDEAK LARRUZKO ESKULANA EGIN GENUEN. HASTEKO IRAKASLEAK LARRU ZATI BAT ETA LIJA APUR BAT EMAN ZIGUN LARRUAN GENITUEN TINTA MARKAK KENTZEKO. ONDOREN, LARRU ZATIA TINTATU ETA ERRETILU FORMA EMAN GENION. ESKULANA BUKATZEKO, BAKOITZAK NAHI GENUEN BEZALA, MARRAZKI EZBERDINEKIN APAINDU GENITUEN.

## BIDE ETA SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNA

URRIAREN 18AN AGIRRELANDARA JOAN GINEN AUTOBUSEZ. HAN SUHILTZAILEEN PARKEA ETA UDALTZAINGOEN EGOITZA BISITATU GENITUEN.

INMA SUHILTZAILEAK JASO ETA ARETO BATERA ERAMAN GINTUEN BIDEO BAT IKUSTEKO. BIDEO HORRETAN NOLA SORTZEN ZIREN SUTEAK IKUSI GENUEN ETA ZER EGIN BEHAR DEN KASU HORIETAN IKASI GENUEN: KEA DAGOENEAN LAU HANKETAN IBILI BEHAR DA, TOALLA BUSTI BATEKIN BABESTU BEHAR DUGU GURE GORPUTZA, IGOGAILUA EZ DA ERABILI BEHAR, ZAPI BUSTIAK JARRI BEHAR DIRA ATEETAN KEA ETA SUA EZ SARTZEKO...

GERO, GURUTZE UDALTZAINA ETORRI ZEN ETA BI TALDETAN BANATU GINEN. TALDE BATEK SUHILTZAILEEN PARKEA IKUSTEN ZUEN BITARTEAN, BESTE TALDEA MOTORRETAN ETA BIZIKLETETAN IBILI ZEN. ORDU BAT PASA ETA GERO ALDAKETA EGIN GENUEN ETA GUZTIOK BI EKINTZAK EGIN GENITUEN.



SUHILTZAILEEN PARKETIK GEHIEN GUSTATU ZITZAIGUNA IZAN ZEN BAT-BATEAN ALARMA JO ZUENEAN ETA SUHILTZAILEAK OSO AZKAR JEITSI ZIRENEAN JANTZI BEREZIAK JANZTERA. OSO ONDO EGON ZEN ERE KAMIOI BATERA IGO GINENEAN.
GURUTZEREKIN EGON GINENEAN ZIRKUITOA EGITEN, GEHIEN GUSTATU ZITZAIGUNA MOTORRETAN IBLTZEA IZAN ZEN.

PRIMERAN PASATU GENUEN



## ARTE EDERRETAKO MUSEOA EZAGUTZEN

5. MAILAKO IKASLEAK, AZKEN HILABETE HONETAN, ARTE EDERRETAKO MUSEORA JOAN GINEN. HORRETARAKO, IKASTOLA ONDOKO GELTOKIAN TRANBIA HARTU GENUEN. LEGEBILTZARREAN JEITSI ETA FLORIDA PARKEA ZEHARKATU ONDOREN, MUSEORA HELDU GINEN. OIHANA GURI ITXAROTEN ZEGOEN. BERA IZAN ZEN MUSEOA ERAKUTSI ZIGUNA.





MUSEO BARRUAN LEHENENGO PERTSONAI OSPETSUEN ARGAZKIEN ERAKUSKETA IKUSI GENUEN; LADY GAGA, JUSTIN BIEBER, MADONNA...

GOIKO PISUAN ERRETRATOAK, BODEGOIAK ETA PAISAIAZKO KOADROAK IKUSI ONDOREN, TALDEKA, JOSTAILUEKIN BODEGOIAK SORTU GENITUEN. BEGIRATU ZEIN POLITAK IRTEN ZIREN



MUSEOA BARRUTIK IKUSI GENUEN, GOITIK-BEHERA ETA KONTURATU GINEN JAUREGI BAT ZELA.

BUKATZEKO BAKOITZAK PAISAI BAT EGIN GENUEN KOLOREZKO KARTOI EZBERDINEKIN: PIRAMIDEAK, IRLAK, SUMENDIAK, ETXEAK, HONDARTZAKO AGERTZEN DIREN PAISAIAK.

IKASTOLARA, KOADERNOTXO BATEKIN, JAKINTZA GEHIAGOREKIN ETA OSO POZIK ITZULI GINEN.

## ERDI AROKO GASTEIZ

KAIXO LAGUNOK!

ERDI AROKO GASTEIZ DERITZOGUN IBILBIDEA EGIN DUGU. GASTEIZKO HIRIGUNE ZAHARREAN BARRENA IBILI GARA. IBILBIDE HONI ESKER, GURE HIRIAREN SORBURUA EZAGUTU AHAL IZAN DUGU.

EA !. IKUS DEZAGUN ZER IKASI DUGUN, IRAKURRI ARRETAZ GURE GALDERA ERANTZUNAK.











ANDER:- MIKEL! . ZUK BADAKIZU 1.181.URTEAN ZEIN ERREGEK SORTU ZUEN VICTORIA HIRIBILDUA
- BAI. NAFARROAKO ANTSO V.I.A JAKITUAK ETA 1431N, GAZTELAKO ERREGE JOAN II.AK, HIRI TITULUA EMAN ZION.

GUILLERMO:- AINARA! ESAN DEZAKEZU NON DAGOEN KOKATUTA GURE ALDE ZAHARRA?
-NOSKI! MUINO BATEN GAINEAN ETA LEHEN HARRESI BATEZ INGURATUTA ZEGOEN





YERAY: -UXUE!. ERNE EGON ZINEN EMANDAKO AZALPENETAN?
-GALDETU NAHI DUZUNA. ZER JAKIN NAHI DUZU?
-ERDI AROAN ZEINTZUK BIZI ZIREN ALDE ZAHARREAN?
-ARTISAUAK ETA SALEROSLE TXIKIAK, NOBLEAK, JUDUAK ETA KLEROA ERE.
-OSO ONDO UXUE.

JANIRE: - JOSE, ESANGO DIGUZU GAUR EGUN, NORTZUK BIZI DIREN AUZO HORRETAN?.
-GIZARTE, EKONOMIA, KULTURA ETA ERLIJIO EZAUGARRI EZBERDINAK DITUZTEN PERTSONAK % 17 ATZERRITARRAK DIRA.

GARAZI: - ETA BUKATZEKO. ANE! IKUSI DUZUN GUZTIEN ARTETIK ZER NABARMENDUKO ZENUKE
-SANTA MARIA KATEDRALA.

HAU IZAN DA DENA. AGUR !!!!











## ESKULTURAK 6. MAILAN

KURTSO HASIERA HONETAN 6. MAILAKOOK LANPETUTA IBILI GARA. LEHENENGO GAIKO PROIEKTUA ESKULTURA BATZUK DISEINATZEA ETA EGITEA IZAN DA. ZEIN HELBURUKIN? BA, ERAKUSKETA BAT ANTOLATZEA EGINDAKO ESKULTURA GUZTIEKIN.

HONETARAKO GASTEIZKO KALEETAN ZEHAR DAUDEN HAINBAT ESKULTURA EKARRI DITUGU GOGORA, IZAN ERE, GASTEIZEN ESKULTURA ASKO DITUGU HAINBAT TOKITAN. PENTSA EZAZUE UNE BATEZ ETA... ZENBAT DATORKIZUE BURURA? HAINBAT, EZTA? EA ANTZEMATEN DITUZUEN HONAKO HAUEK...







ESKULTURA HAUEK HAINBAT MATERIALEZ EGINAK DAUDE BAINA, BATEZ ERE, HARRIZ, EGURREZ ETA BRONTZEZ. NOSKI, GUK, MATERIAL HAUEK ERABILI ORDEZ, KARTULINAK, PAPERA, PLASTILINA, ALANBREA, BUZTINA, BIRZIKLATUTAKO MATERIALAK... ERABILI DITUGU. MATERIAL HAUEKIN HAINBAT ESKULTURA POLIT ETA DIBERTIGARRI LORTU DITUGU.





ONDOREN, IZENA JARRI BEHAR ZITZAIELA ETA, BARRE BATZUK ERE BOTA DITUGU; IZAN ERE, IZEN BATZUK BITXI SAMARRAK DIRA. HONA HEMEN EGIN DITUGUN ESKULTURA BATZUK.

AIPATU DIZUEGUNEZ, GURE ASMOA ESKULTURA HAUEKIN ERAKUSKETA EGITEA ZEN. BA, HOR DITUZUE IKUSGARRI, ETA EZ BAT BAIZIK ETA HIRU SEIGARREN MAILAKO GELA BAKOITZAK BEREA BAITU.
BERAZ, BADAKIZUE, ERAKUSKETAK IKUSTERA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU. PATIO ORDUETAN HURBIL ZAITEZKETE.



ANIMATU ETA ETORRI!

# VINCENT VAN GOGH



VAN GOGH WAS A FAMOUS DUTCH PAINTER.HE WAS BORN IN 1853. HE MADE 900 PAINTINGS (27 WERE SELF-PORTRAITS) AND 1600 DRAWINGS.HE WAS AN IMPRESSIONIST PAINTER.THEO HIS BROTHER, WAS A VERY IMPORTANT PERSON IN HIS LIFE.
AT THE BEGINNING HE USED DARK COLOURS BUT LATER THE COLOURS BECAME VIVID.IN 1886 HE WENT TO PARIS AND IN 1888 TO ARLES IN THE SOUTH OF FRANCE.
HE HAD A MENTAL ILLNESS AND FOR THAT REASON HE CUTTED HIS LEFT EAR .
HIS MAJOR WORK IS "THE POTATO EATERS" .
HE DIED IN 1890 IN FRANCE WHEN HE WAS 37 YEARS OLD.HE SHOT HIMSELF.
THERE IS A MUSEUM IN AMSTERDAM WITH SOME OF HIS PAINTINGS.
HIS MOST FAMOUS WORKS ARE:

" SUNFLOWERS"
"THE STARRY NIGHT"
AND "THE BEDROOM"

JAHILENNE RAMIREZ 6thC



The Starry Night



Sunflowers

VAN GOGH



## EUSKARA ASTEA

AZAROAREN 21ETIK 28ARTE EUSKARA ASTEA OSPATU GENUEN.
AURTENGO GAIA "EUSKAL HERRIAN ZEHAR BIDAIA BAT" IZAN DA ETA LELOA:

**"TIPI -TAPA TIPI- TAPA EUSKAL HERRIAN ZEHAR
TIPI - TAPA TIPI - TAPA MINGAINEAN EUSKARA"**

ASTE HONETAN EGIN DIREN EKINTZAK HAUEK IZAN DIRA:
2. ETA 3. ZIKLOKO IKASLEENTZAT LEHIAKETA BAT ANTOLATU GENUEN. IKASLEEEK PISTEN BIDEZ LEKU MISTERIOTSU BATZUK AURKITU BEHAR ZITUZTEN. LEHIAKETA OSO ARRAKASTATSUA IZAN ZEN ETA IA GUZTIEK PARTE HARTU ZUTEN. HONA HEMEN IRABAZLEAK. ZORIONAK !!!





TIPI -TAPA TIPI- TAPA
TIPI -TAPA TIPI- TAPA
TIPI -TAPA TIPI- TAPA

LEHENENGO MAILAKO IKASLEEK 2. ZIKLOKO ZOZKETA EGIN ZUTEN



2. ZIKLOKO IRABAZLEAK LEIRE ETA LOREA ZORIONAK !!!

TIPI -TAPA TIPI- TAPA
TIPI -TAPA TIPI- TAPA
TIPI -TAPA TIPI- TAPA

3. ZIKLOKO ZOZKETA 5. MAILAKOEK EGIN ZUTEN .








IRABAZLEAK YERAY ETA AZAHARA. ZORIONAK !!!

# euskara astea

# euskara astea

EUSKARA ASTEAREN HASIERA EMATEKO BISITA BEREZI BAT IZAN GENUEN: NOSKI





NOSKIK GELA GUZTIEKIN ARGAZKIAK ATERA ZITUEN ETA OPARIAK EKARRI ZITUEN.

HAUR HEZKUNTZA ETA LEHENGO MAILAKO IKASLEEI IPUIN KONTALARIA, EUSKAL HERRIKO MAPA BAT ETA BESTE OPARI BATZUK EKARRI ZITUEN.





TXIKIEK ASKO DISFRUTATU ZUTEN IPUIN KONTALARIAREKIN



BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOKOEK ANTZERKI POLIT BAT IKUSI ZUTEN. PROTAGONISTAK BI UME IZAN ZIREN. EZKUTATUTA ZEGOEN MAPA MISTERIOTSU BAT TOPATU ZUTEN ETA EUSKAL HERRIAN ZEHAR BIDAIA MAGIKO BAT BURUTU ZUTEN...






## TIPI -TAPA TIPI- TAPA TIPI -TAPA TIPI- TAPA

EUSKARA ASTEA BUKATZEKO IKASTOLAKO IKASLE ETA IRAKASLE GUZTIOK DANTZATZERA PATIORA ATERA GINEN.
OSO POLITA ETA DIBERTIGARRIA IZAN ZEN.
DANTZA IKUSI NAHI BADUZUE IKASTOLAKO WEB ORRIALDEAN ZINTZILIKATUTA DAGO.





DANTZA IKUSTEKO:WWW. UMANDI.NET

Magui
SERVICIO DE CATERING
C/ Larragana, 12 - Pabellón 1 • Telf. 945 25 17 66 - 945 25 18 66 • Fax: 945 25 16 44
01013 VITORIA-GASTEIZ
AENOR
ER
Empresa Registrada
COLECTIVIDADES
COMEDORES EMPRESA
COMEDORES ESCOLARES
HOSPITALES
COMIDAS POPULARES
TALDEAK
ENPRESETAKO JANTOKIAK
ESKOLETAKO JANTOKIAK
OSPITALEAK
OTORDU HERRIKOIAK

## OUR SCHOOL

OUR SCHOOL´S NAME IS UMANDI. IT´S IN VITORIA-GASTEIZ AND IT´S A PRIMARY SCHOOL.

WE´VE GOT CORRIDORS, TOILETS, GYMS, TWO COMPUTER ROOMS, ONE LIBRARY AND TWO TABLE TENNIS IN THE PLAYGROUND. IN THE CLASSROOM, WE´VE GOT ONE CLOCK, RULERS, TABLES, DESKS, MAPS...ETC.

OUR FAVOURITE SCHOOL SUBJECTS ARE P.E AND ART. OUR FAVOURITE DAYS ARE MONDAY AND THURSDAY BECAUSE WE´VE GOT P.E AND ART.

SCHOOL IS EXCELLENT!

BY: HAIZE, IRENE AND NORA. 4B











THE STUDENTS OF PRIMARY 2 KNOW WHAT GOOD EXERCISE IS. THEY WORKED WITH PHOTOS OF FOOTBALL, SWIMMING POOLS AND DIFFERENT SPORTS. GOOD WORK.
CONGRATULARIONS

LIBURUTEGIAN BADAGO ZER IRAKURRI, HONA HEMEN HAINBAT GOMENDIO

ALGUNOS CONSEJOS DE LECTURA QUE PODRÁS ENCONTRAR EN LA BIBLIOTECA.




5. ETA 6. MAILA

KATIXA AGIRREK, IDAZLE GASTEIZTARRAK IDATZIA.

AMAIA LAPITZEK, ISTORIO HONETAKO PROTAGONISTAK, NAHIAGO LUKE UDA IRLANDAN IGARO, BERE LAGUNEN ANTZERA, BAINA HORREN ORDEZ AMA ARKEOLOGOA LAGUNDU BEHARKO DU PALENQUERA, MEXIKOKO HONDAKIN MAIEN EREMURA. BERTAN EMANDAKO LEHENENGO GAUEAN, DESKUBRIMENDU IZUGARRI BAT EGINGO DU. ZER GERTATZEN DEN JAKIN NAHI BADUZU "AMAIA LAPITZ ETA ERREGINA GORRIAREN HILOBIA" ISTORIO ZIRRARAGARRIA IRAKURRI BEHARKO DUZU.




A PARTIR DE 4 CURSO

"EL CASO DE LA PROFESORA DESAPARECIDA" ES UNA DE ESAS HISTORIAS DE DETECTIVES QUE TE ENGANCHA HASTA EL FINAL . ESTA CREACIÓN DEL ALEMÁN FRIEDRICH HA OBTENIDO DIVERSOS PREMIOS INTERNACIONALES. LAS ILUSTRACIONES DE MIKEL VALVERDE SINTONIZAN CON EL TONO DE HUMOR Y AVENTURA DEL LIBRO, RECOGIENDO CON ACIERTO LA AGILIDAD DE LA ACCIÓN DE LOS PERSONAJES. EN ESTE TÍTULO, LOS PROTAGONISTAS INVESTIGAN UN MISTERIOSO SECRETO SIGUIENDO EL RASTRO DE UNA DE SUS PROFESORAS.




4. MAILATIK GORA

TINTIN KOMIKIAK. SEGURU ZINEMAN EGON ZARELA ETA TINTIN KAZETARI AUSARTAREN ABENTURAZ GOZATU DUZULA. JAKIN BEHARKO ZENUKE TINTINEN ABENTURAK EZ DIRELA PANTAILA ERRALDOIAN BUKATZEN, LIBURUTEGIETAN JARRAIPENA DUTE. IZAN ERE, IKASTOLAKO LIBURUTEGIAN HAMAIKA KOMIKI TOPATUKO DITUZU, HORIETAKO BAT DUGU TINTIN ETA EGUZKIAREN TENPLUA.




A PARTIR DE 3 CURSO

"LOS EMBROLLOS DE BENY". BENY SE SIENTE MUY PREOCUPADO PORQUE PIENSA QUE ESTA ENFERMO. SU AMIGA TRISH DECIDE IR CON ÉL AL HOSPITAL. PARA QUE LE DEJEN PASAR, LE DICE A UN GUARDIA QUE SE HA TRAGADO EL ANILLO DE PROMETIDA DE SU MADRE. A PARTIR DE ESE MOMENTO BENY SE VE ENVUELTO EN UNA SUCESIÓN DE EQUÍVOCOS Y LOCURAS SÚPER DIVERTIDAS. TE VAS A REÍR MUCHO CON ESTE LIBRO, NO TE LO PIERDAS.



1. ETA 2. MAILA

"ILARGIA LAPURTU DUTE" LIBURUXKA, EGOKIA 1. ETA 2. MAILAKO IKASLEENTZAT. NORI EZ ZAIZKIO GUSTATZEN INDIOEN IPUINAK! INDIO JATOR BATEK IRUDI EDERREZ LAGUNDUTAKO IPUIN ZORAGARRIA KONTATZEN DIGU LIBURUXKA HONETAN.

# UMANDI LIBURUTEGIA INTERNETEN
# LA BIBLIOTECA DE UMANDI EN INTERNET.

## LIBURUTEGIKO BLOGA

BLOG HONETAN, BIDEOAK, ARGAZKIAK ETA IKASLEEK IRAKURRITAKOEN LIBURUEZ DITUZTEN IRITZIAK ZINTZILIKATZEN DIRA LIBURUTEGIAN EGITEN DEN ORO JAKIN DEZAZUN.

**www.piratazaharra.blogspot.com**






## EL BLOG DE LA BIBLIOTECA.

EN ESTE BLOG SE CUELGAN VIDEOS, FOTOS Y OPINIONES DE LOS LIBROS QUE HAN LEÍDO LOS ALUMNOS PARA QUE NO TE PIERDAS NADA DE LO QUE PASA EN LA BIBLIOTECA.



UN AÑO MÁS ESTAMOS AQUÍ DE NUEVO, Y NOS GUSTARÍA EMPEZAR DANDO LAS GRACIAS A TODOS LOS PADRES Y MADRES DE LA IKASTOLA QUE COLABORAN CON SU TRABAJO EN LAS DIFERENTES COMISIONES DEL AMPA; Y TAMBIÉN A LOS QUE OCASIONALMENTE SE ACERCAN PARA ECHAR UNA MANO EN MOMENTOS PUNTUALES.

SIN EMBARGO CADA VEZ SOMOS MENOS LOS QUE COLABORAMOS Y MUCHAS DE LAS ACTIVIDADES QUE SE DESARROLLAN DESDE EL AMPA CORREN EL RIESGO DE DESAPARECER.

SABEMOS QUE MUCHAS VECES ES COMPLICADO, TRABAJAMOS DENTRO Y FUERA DE CASA...PERO NUESTRA PARTICIPACIÓN EN LA VIDA ESCOLAR ES FUNDAMENTAL. DE NUESTRA IMPLICACIÓN DEPENDEN MUCHAS DE LAS ACTIVIDADES QUE SE DESARROLLAN EN EL CENTRO.

- PARA ORIENTAR, ESTIMULAR Y AYUDAR A LAS FAMILIAS EN TODO LO RELACIONADO CON LA EDUCACIÓN DE NUESTROS HIJOS.
- PARA COLABORAR EN LAS LABORES EDUCATIVAS DE LA IKASTOLA.
- PARA PARTICIPAR EN LA GESTIÓN DE LA IKASTOLA.
- PARA ORGANIZAR ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS DIRIGIDAS A FAMILIAS Y ALUMNADO.

Y RECORDAD QUE NOS TENÉIS A VUESTRA DISPOSICIÓN, COMO SIEMPRE.

HEMEN GAUDE BERRIRO, AURTEN ERE. ETA HASTEKO GURASO ELKARTEKO KOMISIOETAN LAN EGITEN DUTEN GURASO GUZTIEN ARDURA ESKERTU NAHI DUGU, BAITA NOIZBEHINKA HURBILTZEN EDO LAGUNTZEN DUTENENA ERE.

BAINA BESTALDETIK GERO ETA GUTXIAGO GARA LAN HAUETAN LAGUNTZEN DUGUNOK ETA GURASO ELKARTEAK ANTOLATZEN DUEN EKINTZA ASKO DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDE.

JAKIN BADAKIGU ASKOTAN ZAILA DELA, LAN EGIN BEHAR DUGULAKO, BAI LANTEGIETAN EDO BULEGOTAN ZEIN ETXEETAN. BAINA EZINBESTEKOA DUGU PARTE HARTZEA IKASTOLAKO GAUZETAN.

ZENTRUAN BURUTZEN DIREN EKINTZA ASKO GURE ARDURA BEHAR DUTE.

- GURASOEI BEREN SEME-ALABEN HEZIKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAUZEI BURUZKO AHOLKUA, SOSTENGUA ETA LAGUNTZA EMATEKO.
- IKASTOLARI HEZKUNTZA JARDUERETAN LAGUNTZEKO.
- IKASTOLAKO KUDEAKETAN PARTE HARTZEKO.
- GURASO ETA IKASLEENTZAT JARDUERA OSAGARRIAK ANTOLATZEKO.

ETA BADAKIZUE, ZURE ESANETARA GAUZKAZUE, BETI BEZALA.

UMANDI GURASO ELKARTEA

EROSKI center
C/ José María Diaz de Mendívil, Nº 1

umandi ikastola




## UMANDI IKASTOLA 2011-2012

**IRAILA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |

**URRIA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**AZAROA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

**ABENDUA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**URTARRILA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

**OTSAILA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | | | | |

**MARTXOA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

**APIRILA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

**MAIATZA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

**EKAINA**

| AL | AR | AZ | OG | OL | LA | IG |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | |

Goizeko lanaldia / Jornada continua 09:00-13:00

Egun osoko lanaldia / Jornada completa 09:00-12:30 / 15:00-16:30

Asteburuak, jaiak, oporrak / Fines de semana, festivos, vacaciones

# ENTRA EN WWW.UMANDI.NET

